



Urretxuko udala



**PAGOETAKO UDAL IGERILEKUAN HARRERA, SARRERA ETA ARROPA  
GORDETEGIAREN ZERBITZUA BETETZEKO 3 LAGUNTZAILE-ATEZAINEN  
KONTRATAZIOA**

**Kontratu mota**

- 
- Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak, aldi baterako (502) izango dira: %77ko lan-jardunaldia.
  - Kontratazioaren datak: 2024/06/14 - 2024/09/08
  - Soldata: 1.365,93 €/hileko izango da. Jai egunetan egindako orduengatik jai-eguneko plusa jasoko da, 7,80 €/orduko.
- 

**Lan eginkizunak:**

- 
- a) Instalazioak ireki eta ixtea, Urretxuko Udalak jendearen arretarako jarritako orduetan.
  - b) Erabiltzaileen eta bazkideen sarrera kontrolatzea, baita instalazioen erabilerarengatik egin beharreko kobrantzak egin ere.
  - c) Egunero diru kontaketa egitea, eta emango zaion kontu korrontean sartzea.
  - d) Instalazioak ondo erabili eta zaindu daitezen begiratzea, erabilera araudia betearaziz.
  - e) Erabiltzaileek instalazioak nola erabiltzen dituzten kontrolatzea.
  - f) Udalak izendatutako pertsoneri jakinaraztea instalazioetan gerta litekeen edozein gorabehera, edo erabiltzaileekin sortzen den edozein arazo.
  - g) Galdutako gauzen kontrola.
  - h) Oharrak eta deiak egitea megafonia bidez.
  - i) Erabiltzaileek arropa gordetegian utzitako gauzak kontrolatzea.
  - j) Puntualki garbiketa lanak egitea instalazioa txukun eta egoera onean mantentzeko.
- 

**Derrigorrez bete beharrekoak:**

- 
- Gutxieneko adina: 18 urte.
  - Gutxieneko prestakuntza maila: Eskola Graduatua, Bigarren Hezkuntzako Graduatua, Lanbide Heziketa 1. maila edo baliokidea.
  - Euskarako B2 tituluaren edo baliokideren baten jabe izatea.
  - Kontratazio aldian erabat libre izatea, hau da, 2024ko ekainaren 14tik irailaren 8ra.

## **Merituak:**

---

Derrigorrezko irizpide guztiak betetzen dituzten hautagaien artean, honako puntuazioa hartuko da kontuan aukeraketa egiteko:

<b>1.- Deialdian eskatutakoa baino titulazio maila altuagoa</b>	<b>Gehienez 7 puntu</b>
<b>2.- Erabiltzaile mailan informatika ezagutza izatea</b>	<b>Gehienez 3 puntu</b>
<b>3.- Langabezian egotea, 2024/04/01a aurretik</b>	<b>Gehienez 3 puntu</b>
<b>4.- Errolda</b>	<b>Gehienez 5 puntu</b>
Urretxun erroldatuta egotea 2024/04/01 baino lehen	5 puntu
Urola Garaia-ko beste herri baten erroldatuta egotea, 2024/04/01 baino lehen	2 puntu
<b>5.- Jendearen harreraren eta lanpostuaren funtzioekin lotutako zereginetan egiaztatutako esperientzia</b>	<b>Gehienez 5 puntu</b>
<b>6.- Lanpostura egokitzeko elkarrizketa pertsonala (*)</b>	<b>Gehienez 3 puntu</b>

(\*) Elkarrizketa pertsonala egin ahalko zaie 1etik 5erako merezimenduen balorazioan puntuazio altuena lortzen duten 6 hautagaiei.

Behar bezala egiaztatutako merituak bakarrik izango dira kontuan.

Ez dira egiaztatu behar Urretxun erroldatuta egotea eta Urretxuko Udalean izandako esperientzia, baina bai adierazi behar dira, kontuan har daitezten.

## **Aurkeztu beharreko agiriak:**

- Eskaera-orria
- NAN-ren kopia
- Deialdian eskatutako tituluak egiaztatzea
- Curriculum eta adierazitako merituen egiaztagirak

## **Aurkezteko epea eta tokia:**

- Eskaera-orriak 2024ko maiatzaren 15era arte (14:00ak bitartean) aurkez daitezke, Urretxuko udaletxeko erregistro nagusian.



Urretxuko udala



### **Epaimahaia**

Epaimahaia modu honetan osatuko da:

Lehendakaria: Herritarrak batzordearen Lehendakaria.

Mahaikideak:

- Sustapen Soziokulturaleko kide bat.
- Administrazio orokorreko kide bat.
- Langileen ordezkari bat.

Idazkaria: administrazio orokorreko kide bat

Epaimahaiak balorazioa egin ondoren, puntu gehien lortu duten izangaiak kontratatzeko proposamena egingo du.

### **Lan-poltsa:**

Baldintzak bete dituzten izangaiekin lan-poltsa osatuko da, lortutako hurrenkeraren arabera, eta kontratazioak dirauen bitartean sortzen diren beharrei erantzuteko erabiliko da.

Urretxun, 2024ko apirilaren 25ean

Sin.: Jon Luqui Albisua  
Urretxuko alkatea